



TABAKALERA ETA TEKNIKER ELKARLANEAN ARIKO DIRA ARTEA, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA UZTARTZEN DITUZTEN PROIEKTUAK SUSTATZEKO

Tekniker eta Tabakalera -Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroak- erakundeen arteko lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu dute gaur. Elkarlan horren helburua sorkuntzan oinarritutako proiektuak garatzeko, ezagutza berriak sortzen eta gizarteratzen laguntzeko, sortzaileek zientzian eta industrian duten ahalmen berritzailea bultzatzeko eta sormen-sektorea profesionalizatzeko aukera berriak lortzea da.

Bi erakundeak dagoeneko elkarrekin ari dira **gizakien eta roboten arteko elkarrekin-tza emozionala** esploratzeko ekimen bat garatzen, enpresetako elkarlaneko robotikan eragin eta Euskadin egindako ikerketa-lana gizarteratzeko. *Dream painter (Amets-margogailua)* izeneko egitasmoa Medialab eta Teknikerren berrikuntza eta robotika lan-arloaren arteko elkarlanari esker gauzatzen ari da, Varvara & Mar artista bikotearen parte-hartzearekin.

2020ko uztailean Medialab, sorkuntzako liburutegi-laborategia abian jarri zenean, Tabakalera lan-ildo berri bati ekin zion: sorkuntzan oinarritutako eta gizartearentzat garrantzitsuak diren proiektuak hainbat sektoretako eragileen lankidetzarekin garatzea. Lan-ildo hori arte-sorkuntzan oinarritzen da, ikerketa-baliabide gisa ulertuta, ezagutza berria sortzeko, errealitatearen beste irakurketa batzuk egiteko eta etorkizuneko beste agertoki batzuk planteatzeko duen gaitasunagatik.



Lehen proiektuak eta Dream painter

2020ko udan gorpuztu zen eremu honetan Tabakaleraren lehen esperientzia *Supraspectives* ikus-entzunezko instalazioa, Donostia International Physics Centerrekin eta Ars Elektronika kultura-, hezkuntza- eta zientzia-institutuarekin elkarlanean. Instalazio artistiko handinahi eta erakargarria sortu zen, etengabe gure gainean hegan egiten duten sateliteek lortutako informazioan oinarrituta. Piezak agerian uzten zuen kanpoko espaziotik ikusitako lurraren edertasun iradokitzailearen eta askotan helburu militar eta zaintzarako helburuekin egiten den giza kolonizazioaren kontzientzia kritikoaren arteko kontrastea.

Teknikerrekin, Euskadiko ikerketa teknologikoko zentro nagusienetariko batekin, elkarlanean jardunda, Tabakalerak beste urrats bat eman nahi du ildo horretan, eta sortzaileek enpresetan eta ikerketa-zentroetan eragin berritzaile handiagoa izan dezaten bultzatu nahi du, bai eta sektore sortzaile, zientifiko, teknologiko eta industrialen artean lankidetzaz-espazio egonkorak sortu ere.

Horretarako, Tabakalera, Tekniker eta Mar & Varvara artista bikotearen arteko lan-prozesu bat aktibatu da, sormen artistikotik pertsonen eta roboten arteko konfiantza-harremanak, gizakiaren eta robotaren arteko hizkuntza naturalaren komunikazioa (ez-konputazionala), roboten arteko komunikazioa eta sormena bezalako gaiak jorratzeko.

Gaur egun diseinu fasean dagoen instalazio bat da proposatzen dena: robot sozial bat, bisitariak beren ametsak kontatuko dizkieten eta, ondoren, bisitarien ametsen interpretazioetan oinarritutako mural bat "margotzen" duena. Une honetan, lantaldea erabiliko dituen teknologia definitzen ari da. Emaitza udazkenean aurkeztea aurreikusten da, *Eginzaleak!* Tabakalerak teknologia hiritarraren inguruan egiten buruz egingo dituen topaketetan.



Artea, zientzia eta teknologia uztartzen dituzten proiektuek nolabaiteko ibilbidea dute jadanik Europa erdialdeko herrialdeetan, hala nola Herbehereetan, Suitzan, Alemanian edo Austrian, baina ez Euskadin. Lan-ildo hori bultzatuz, Tabakalerak dagoeneko baditu lankidetzak-hitzarmenak esparru horretako erreferentziazko zentroekin, V2 edo Ars Electrónica zentroekin esaterako, eta laborategi eta bitartekari bihurtu nahi du, elkarlanean aritzen den erakundeetan berrikuntza-inpaktua lortzeko eta artistei lan-modu berriak eskaintzeko. Gainera, landu beharreko gaiak gaur egun duten garrantzia eta Medialab-en izaera publikoa kontuan hartuta, gai horiek gizarteratzeko aukera ere badago.

Herritarrei irekitako tailerrak eta hitzaldiak eskainiko dira Medialab-en lan-prozesu osoan zehar teknologiekiko eta proiektuak lantzen dituen beste gai batzuekin lotutako gaiak lantzeko eta proiektuak jorratzen dituen funtsezko alderdiak gizarteratzen laguntzeko.

Donostian, 2021eko ekainaren 15ean

Info+:

prentsa@tabakalera.eus

943011311 / 688743500

www.tabakalera.eus